



2011_{ko}
MEMORIA

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA◀





SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

2011ko
MEMORIA

Andoain, 2012ko urtarilean

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA<

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 Andoain
Tel.: 943 592 556
kluster@soziolinguistika.org
www.soziolinguistika.org

ERAKUNDE BAZKIDEAK



EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta
Portaera Zientzien Metodologia Sailak



ARTEZ Euskara Zerbitzua



ELHUYAR Aholkularitza



AZTIKER Ikergunea



Eusko Ikaskuntza



EMUN Kooperatiba



Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzietako Fakultatea (HUHEZI)



EHU-UPVko Soziologia II Saila



Nafarroako Euskara Teknikarien
Lanbide Elkartea (NETeLE)



Topagunea.
Euskara Elkarteen Federazioa



Hernaniko Udala



Tolosako Udala



Euskaraz Kooperatiba
Elkartea (AEK)



Gipuzkoako Urtxintxa eskola



Gipuzkoa Donostia Kutxa



EHU-UPVko Hezkuntzaren
Teoria eta Historia Saila



Euskal Herriko
Ikastolak



Ebete Hizkuntza Zerbitzuak



Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza
eta Gizarte Zientzien Fakultatea




Bermeoko Udala



BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea




Erandioko Udala



Aurkibidea



SOZIOLOGIA KLUSTERRA: ERAKUNDE BAZKIDEAK	5
SAR HITZA	9
SOZIOLOGIA KLUSTERRA PROIEKTUAREN SORRERA	11
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN OSAKETA ETA ANTOLAKETA	12
Antolaketa-eredua: Klusterra	12
Soziologia Klusterraren osaketa	12
Soziologia Klusterraren antolaketa	13
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK	14
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN MAPA ESTRATEGIKOA	15
LANKIDETZAK	16
PROIEKTUAK	17
IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA	17
1. ARRUE: ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabilera	18
2. ALDAHITZ proiektua: hizkuntza-ohituren aldaketa	18
3. ERALAN: euskararen erabilera lan munduan	19
4. Unibertsitateko ekintza-ikerkuntza egitasmoa	19
5. Nerabeak, Interneteko Sare Sozialak eta Euskara	20
6. Ahozko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodoen garapena: laginaren kalkulua	20
7. Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-erabileraren VI. Neurketa: datu-bilketa	21
8. Herrietako Kale Erabileraren Neurketak	21
9. EUSKAINI: herrietako euskarazko eskaintzaren neurketak	22
10. Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuen Argitalpena	22
PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA	23
1. BAT Soziologia Aldizkaria	23
2. HAUSNARTU: Euskal Soziologia sariak	24
3. Euskal Soziologia jardunaldiak	25
4. Soziologia ikastaroak EHUren udako ikastaroetan	26
5. Hizkuntza-ekologiaren inguruko aholkularitza (Kutxaren ekogunea)	26
6. Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak Topaketa	27
7. Erabileraren GPS-a. Gazteen erabileraren kokatu eta bertan esku-hartzeko Gida	28
8. Soziologia: kontzeptu nagusiak ikastaroa	28
9. Formazio- eta aurkezpen-saioak	29
10. Soziologia Klusterra Interneten	30





Sar hitza

Hizkuntza-ekologia Soziolinguistika Klusterrak 2011 urtean asko landu duen kontzeptua izan da. Hizkuntza-praktika ekologikoen inguruan topaketak, ikastaroak, mintegiak eta proiektuak garatu ditugu eta horietako batean, Albert Bastardas irakasleak honako hitz hauek utzi zizkigun:

“Zatia osotasunean dago eta osotasuna zatian dago. Hizkuntza gizartean dago eta gizartea hizkuntzan dago”.

Soziolinguistika Klusterraren eginbeharra esaldi horrekin laburbildu genezake. Batetik, hizkuntza eta gizartea uztartzen saiatzen garelako, gure misioak garbi adierazten duen bezala: *“euskararen normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta interesa piztea”*. Bestetik, zatiak -erakunde, pertsona eta proiektuak- kluster izaera duen osotasunean biltzen direlako.

Horregatik, 2011. urtean soziolinguistikaren ekosistema osatzen jarraitu dugu lan-proiektuak garatzen, erakunde ezberdinen arteko elkarlana errazten eta adituak eta ari-tuak biltzen.

Lan-proiektuei dagokienez, ibilbide sendoa duten Arrue edo Eralan moduko egitasmoekin batera, berriak eta berri-tzaileak diren jarduerak garatu ditugu: Aldahitz, nerabeak eta interneteko sare sozialen inguruko ikerketa, unibertsi-tateko ekintza-ikerkuntza egitasmoa... Horiekin batera, dibulgazioa denez Klusterraren helburu nagusienetako bat, arlo honetan nabarmentzeko lana egin da: BAT aldizkaria, Euskal Soziolinguistikaren IV. Jardunaldia, EHU-ko udako ikastaroa, UEMA-ko topaketa, Hausnartu sariak, soziolin-guistika ikastaroak, kasu aurreratuen argitalpenak, gazteen erabileraren faktoreen liburuxka...

Baina, zalantzarik gabe, 2011n Soziolinguistika Klusterre-ko egitasmo garrantzitsuenak, Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-Erabileraren VI. Neurketa izan da. Hogeita bi urteko ibilbidea egin eta gero, aurtun, Euskal Herriko 97 udalerrietan euskararen ahozko kale erabilera seigarren aldiz neurtu da. Ikerketa-lan honek 22 urteko ibilbide luzea du eta euskararen errealtate sozialaren alderdi oso garrantzitsu baten argazki zehatza ematen digu.

Bestalde, soziolinguistikaren ekosistema osatzen duten erakundeak geroz eta gehiago direla esateak poza handia

ematen du. Urtez urte, bazkide berriak hurbiltzen ari zaizkigu eta 2011. urtean ere, hala izan da. Lerro haueta-tik, beraz, Bermeo eta Erandioko Udalei eta Bai Euskara-ri Ziurtagiriaren Elkarteari ongi etorria eskaini nahi diegu. Ez genuke ahaztu nahi, aurtun, HABE liburutegiarekin eta Gipuzkoa Donostia Kutxarekin sinatu berri ditugun lan-kidetza hitzarmenak. Eskerrik asko haiei ere.

Baina proiektuak eta erakundeak pertsonak osatzen dute eta gurean ere, osotasuna pertsonengan oinarrituta dago. Batetik, soziolinguistika-arloko kolaboratzaileen sarea zabaltzen ari dela nabarmendu behar dugu. Bestetik, Soziolinguistika Klusterreko bulegoko teknikari guztiek egiten duten lana azpimarratu behar dugu. 2011. urtean, bereziki, Denis Elorzak egindako lana eskertzeaz gain, bere ibilbide berrian zortea opa nahi diogu. Maiz, ordea, agurrekin batera, ongi etorriak egin behar izaten denez, Ibon Usaralde kudeatzaile berriari ongi etorria eman nahi diogu.


2011 urtea joan zaigu, beraz, eta 2012a iritsi zaigu berri triste batekin: Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren heriotza. Euskal soziolinguistika esparrua zabaltzen TXILLARDEGI aitzindaritza izan zen. Beste hainbat toki-tan azpimarratu izan dugun bezala, Txillardegik euskara-ren berreskurapen sozialerako behar-beharrezko ikusten zituen gaiaren azterketa eta lanketa. Hizkuntza-normal-kuntza prozesuen gaineko ikerketa eta dibulgazio lanari hauspoa ematen ahalegindu izan da beti. Horren froga dira, BAT Soziolinguistika aldizkariaren aurreneko alean Soziolinguistika Klusterrerako oinarritzakoak izan daitezke-en Txillardegik idatzitako hitzak:

Gure nazio-hizkuntza berriro mintzabide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; (...) Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak aha-lik eta ongienik ezagutzea. Lehenbizi jakin egin behar da, egia ezagutu behar da al bait zehazkienik, beste herrietako saioak, arrakastak eta porrotak aztertu behar dira. Bestea, berriz, hizkuntza pizkun-dean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestarazi behar dugu.

Soziolinguistikaren osotasunaren oinarritzako zati garran-tzitsu bat galdu dugula sentitzen dugun arren, Txillardegik osotasunari eman dion guztiarengandik zortedunak gare-la uste dugu. Mila esker, beraz, Txillardegia.

Jaime Altuna

Soziolinguistika Klusterreko lehendakaria





Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera◀

Soziolinguistika Klusterra sortzeko proiektua 2000ko azaroan egituratu zen “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” SIMPOSIUMeko erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren baitan. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa- eta zabalpen-gune baten gabezia eta beharra jasotzen zen, Euskal Herrian hizkuntzaren normalizazio-prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei (pribatu, publiko zein gizarte-mailakoei) arlo zientifikotik eta aplikatutik laguntza eskaini eta beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik, Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginetan bat egin zuten hainbat eragilek. Hasieratik zeudenekin (NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, EHU-UPVko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartearekin) bat egin zuten Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portatera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Horien artean, Klusterra sortzearen aldeko bidean, gaia- inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin zuten: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak eginez, eztabaidarako foroak antolatuz eta lankidetzarako hitzarmenak sinatuz (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»-ren aldeko lankidetzeta-Protokoloa, 2001eko azaroan «SIKeraiki» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Harez geroztik, urtez urte sendotzen doan proiektua da Klusterra, bere funtzioa ahalik eta modu sendoenean bete nahi duena eta euskal eragileen artean kalitatezko zerbitzua eskaini nahi duena, bai maila teorikoan zein aplikazio praktikoetan aholkularitza behar dutenen artean ere.

Sendotze ibilbide horretan aipagarria da eraketa batzar hartatik hona, bazkide egin diren gainerako erakundeen ekarpena ere: Topagunea, Gipuzkoako Urtxintxa Eskola, Artez, Aztiker, AEK, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Hernani, Bermeo, Tolosa eta Erandioko udalak, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, Euskal Kultur Elkargoa, Ebete elkarte eta Euskal Herriko Ikastola. Eta ezin ahaztu, Klusterraren proiektuak diruz hornitzen dituzten erakunde publiko nahiz pribatuen ekarpena ere.





Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

Antolaketarako eredua: Klusterra

Soziolinguistika Klusterrak izaera ezberdina duten entitateak lotzen ditu elkarren artean: enpresak, unibertsitateak, ikastolak, gazte eta helduei zuzenduriko formazio-zentroak, administrazioak hainbat kide, gizarte-elkarte dinamizatzailerak eta bestelako elkarte profesional eta eragileak. Guztiek dute helburu euskararen biziberritze-ahaleginean ahalik eta modu eraginkorren aritzea. Klusterrak lortzen du horrela interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen artean talde-lanak sendotzea eta sinergiak sortzea.

Kooperazio-egitura horiek baliatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea du helburu Klusterrak eta berrikuntza sustatzea. Horregatik, erakunde desberdinen artean eginko proiektuek lehentasuna izan ohi dute gurean.

Soziolinguistika Klusterraren osaketa




BAZKIDE SUSTATZAILEAK

EMUN Kooperatiba / Eusko Ikaskuntza / Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (HUHEZI) / ELHUYAR Aholkularitza / ARTEZ Euskara Zerbitzua / Gipuzkoako Urtxintxa eskola / Gipuzkoa Donostia Kutxa / AZTIKER Ikergunea / Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK) / Topagunea. Euskara Elkarten Federazioa

BAZKIDE ERABILTZAILEAK

EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak / EHU-UPVko Soziologia II Saila / EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila / Ebete Hizkuntza Zerbitzuak / Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETeLE) / Hernaniko Udala / Euskal Herriko Ikastolak / Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Bermeoko Udala / Erandioko Udala / Tolosako Udala / BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea

Soziolinguistika Klusterraren antolaketa





Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

Misioa

Soziolinguistika Klusterra soziolinguistika eremuko eragileen klusterra da. Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egoiak sortuko ditu, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu.

Bidea

- Euskararen normalizaziorako baliagarriak diren marko teorikoak garatzea.
- Marko teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea.
- Euskararen egoeraren inguruko adierazle eta datuak eskuratzea.
- Ikerketak garatzea eta ikertu dadin bultzatzea.
- Informazio eta formazioa zabaltzea.
- Esperientzia eredugarriak biltzea eta zabaltzea.
- Soziolinguistikarekiko interesa lantzea.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterra euskararen soziolinguistika-arloan erreferente izango da lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak, kalitatezkoak eta diziplinartekoak burutzeagatik. Horretarako, irizpide propioekin lan egingo du.


Balioak

- 1 Euskararen hizkuntza-komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea.
- 2 Bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, interes orokorreko proiektuak garatzea.
- 3 Bazkideen jarduera errespetatzea eta indartzea, konkurrentzia saihestuz eta osagarritasunak bilatuz.
- 4 Komunikazioa egoki lantzea.
- 5 Proiektuetan kalitatea bermatzea.
- 6 Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea.
- 7 Bazkideei emaitza onuragarriak eta erabilgarriak eskaintzea.
- 8 Klusterrak bokazio publikoa duenez, gizarte-mailan bere emaitzak zabalduko ditu.
- 9 Klusterrak gizarte-erantzukizunez jokatu du.
- 10 Talde-lana, lankidetzak eta hurbiltasuneko harremana izango ditu oinarri.

Soziolinguistika Klusterra mapa estrategikoa

- **Helburu gakoak:** misioari eta bisioari zuzenean lotutako helburuak, baita alderdi ekonomikoarikoak ere.
- **Erabiltzaileak:** misioa eta bisioa lortzeko erabiltzaile eta komunitatea.
- **Prozesuak:** antolaketa-sistema eta kudeaketa-eredua, eta **baliabideak:** baliabide pertsonal eta materialak.
- **Pertsonak:** teknikarien gaitasunen eta lan-baldintzen egokitasuna.

Mapa estrategikoa





Lankidetzak

EHU: EHUko udako ikastaroetan soziolinguistikaren inguruko ondorengo ikastaroa antolatu dugu: *Hizkuntza-ekologia. Teoriatik praktikara*.

KUTXA: Zabalegi finkan EKO GUNEA proiektua garatzen ari da KUTXA, garapen iraunkorrari buruzko gune gisa. Gune horretan, besteak beste, hizkuntzen ekologia eta hizkuntzen garapen iraunkorra landuko da. Hizkuntza-gunearen diseinu eta garapenerako aholkularitza eskaini diogu KUTXAri.

BERDE-BERDEA izeneko proiektua KUTXAren egitasmo iraunkorra da. Bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta bereziki, *iraunkortasuna* gai eta oinarri hartuta, material didaktikoko programa bat da. Aurtengo edizioan aukeraturiko gaia *Hizkuntza ekologia* izan da, eta bertan Klusterrak ardura teknikoa izan du.

HABE liburutegia: proiektuetarako, erreferentzia bibliografikoak eskuratzeko eta liburutegiko funtsaren zabalpena egiteko lankidetzak jarraitu dugu.

ASMOZ Fundazioa: urtero bezala, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikastaro laguntzaile izan gara.

HUHEZI eta **GARABIDEK** antolaturiko Hizkuntzen Berreskurapenerako Aritu tituludun maisutza batzorde akademikoan parte hartu dugu.





Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

- 1 **ARRUE:** ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera
- 2 **ALDAHITZ:** euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan-munduan
- 3 **EraLan:** euskararen erabilera lan munduan
- 4 **Unibertsitateko ekintza-ikerikuntza** egitasmoa
- 5 **Nerabeak, Interneteko Sare Sozialak eta Euskara**
- 6 **Ahozko hizkuntza-erabilera** behaketa bidez neurtzeko metodoen garapena
- 7 **Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-erabileraren Neurketa**
- 8 **Herrietako Kale Erabileraren Neurketak**
- 9 **EUSKAINI:** herrietako euskarazko eskaintzaren neurketak
- 10 **Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak**

PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

- 1 **BAT** soziolinguistika aldizkaria
- 2 **HAUSNARTU**
Euskal Soziolinguistika Sariak
- 3 **Euskal Soziolinguistika Jardunaldiak**
- 4 Soziolinguistika Ikastaroak **EHUren udako ikastaroetan**
- 5 Hizkuntza-ekologiaren inguruko aholkularitza
- 6 *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* **topaketa**
- 7 **Erabileraren GPS-a** dibulgazioa
- 8 *Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak* **ikastaroa**
- 9 **Formazio eta aurkezpen-saioak**
 - Berde-Berde material didaktikoa
 - Ekoliderrak egitasmoan hitzaldia
 - Garabideko batzorde teknikoko lankidetzak
- 10 **Soziolinguistika klusterra interneten**
 - Webgunea eta telebista
 - Sare sozialetan: Twitter, Facebook
 - Soziolinguistikaz berripapera

Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

www.soziolinguistika.org/arrueproiektua

1

ARRUE proiektua

IKASLEEN ESKOLA-GIROKO HIZKUNTZA-ERABILERA

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna (EHU)
Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
p.suberbiola@soziolinguistika.org
a.basurto@soziolinguistika.org

Arrue EAEko haur eta gazteen eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzeko sortutako proiektua da. Ikerketa honen helburua eskolako hizkuntza-erabileran zein alda- gaik eragiten duten ikertzea da, edo, hobeto esateko, nolako lotura duen eskolako hizkuntza-erabilerak aztertzen diren beste aldagaiekin. Proiektu hau Eusko Jaurlari- tzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan garatzen dugu 2004-2005 ikasturteaz geroztik.

2011. urtean proiektua ISEI-IVEI-rekin (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Era- kunea) koordinatu da, eta horri esker, Ebaluazio Diagnostikoa probaren bitartez, EAEko LMH4ko (9-10 urte) eta DBH2ko (13-14 urte) ikasle guztien datuak jaso dira Arruerako.



2011. urtean zehar, beraz, batetik aipatutako datu-jaso- keta diseinatu eta egin da ISEI- IVEIren bitartez, eta bestetik, jasotako datuen analisi estatis- tikoak egin dira. 2012an zehar emango dira ezagutzera jaso- tako datuak eta horien ondo- rioak.

Babeslea



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila
(hitza)

Lankidea



www.soziolinguistika.org/aldahitz

2

ALDAHITZ proiektua

HIZKUNTZA-OHITUREN ALDAKETA

Zuzendaria: Pello Jauregi (EHU)
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

Aldahitz 2010. urtean sortutako proiektua da, eta bere aztergai nagusia honako hau da: euskara ikasi duten langileek lankideekin gaztelaniatik euskarara egin dituzten ohitura-aldaketaren prozesuak, eta langile horiek euskara ikasteko jarraitu dituzten prozesuak. Proiektuak jarraipena ematen dio, neurri batean, 2009an Klusterrak gara- tutako *Bikoteen hizkuntza-ohituren aldaketa* proiektuari. Aldahitz-en kasuan, ordea, azterketa lan munduan kokatu da, eta lantalde zabalagoa osatu da. Pello Jauregi zuzendari dela, bost erakundek parte hartu dute proiektu-taldean: AEK-Ahize (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Agurtzane Loidi), Emun (Gurutze Mendi- zabal), Hernaniko Udala (Malores Etxeberria) eta Hizkuntza Politikarako Sailbu- ruordetza (Jon Aizpurua).

Ikerketa 2010eko ekainetik 2011ko ekainera artean garatu da. Langileen kasuak lokalizatu eta modu kualitatiboan aztertu dira. Kasu eta prozesu bakoitzaren gako nagusiak identifikatu dira lehenik, eta ondoren orokortzeko modukoak diren gako- ak eta ondorio nagusiak landu eta sintetizatu dira. Ikerketaren ondorioen zabalpena 2012. urtean zehar egingo da.

Babeslea



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila
(hitza)



Proiektuak IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

3

ERALAN

EUSKARAREN ERABILERA LAN MUNDUAN

Zuzendaria: Nekane Goikoetxea
Koordinatzaileak: Denis Elortza eta
Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

2008-2010 epean garatu zen EraLan2 proiektuaren helburua hizkuntza-lidergoa iker-tzea izan zen eta, arlo teorikoa lantzeaz gain, hizkuntza-normalizaziorako planak dituzten lan-munduko hainbat erakunde publiko zein pribatutan hizkuntza-lidergoa-ren aldagaia lantzeko interbentzioak garatu genituen (ondorioak *EraLan2 ikerketa-proiektua. Hizkuntza-lidergoa aztergai* izeneko argitalpenean jasota daude).

2011. urtean zehar egitasmoaren hirugarren fasearen (2011-2013) lanketa egin da. EraLan2 epean eginiko interbentzioen baloraziotik abiatuta bi lan-ildo definitu dira hizkuntza-lidergoaren ikerketan eta aplikazioan jarraitzeko: 1) *Herri-administrazioan erabilera-planak berritzen* eta 2) *Prentsaurreko eta ekitaldi publikoetan hizkuntza portae-ra egokiak*. Horiekin batera, aldagai berri baten gaineko interbentzioetarako definizio-lanak egin dira (*Hizkuntza-portaera aktiboak erakundeen kulturaren argitan*).

Horrez gain, 2011ko abenduaren 1 eta 2an Formazio Topaketa egin da Huhezi fakulta-tean, eta harremanak landu dira 2012tik aurrera EraLanen parte har dezaketen era-kundeekin, modu horretan EraLan egitas-moa praktika-komunitate gisa egituratzen hasteko pausoak emanaz.



Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Salburuordetza

4

UNIBERTSITATEKO EKINTZA-IKERKUNTZA EGITASMOA

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

2011. urtean abian jarritako proiektua da hau eta ondorengo hau du bere izen osoa: *Unibertsitateko euskal adarreko ikasleak: ekintza-ikerkuntza egitasmoa*.

Euskararen gaineko ezagutzak eta haren erabilera ez dute bilakaera berdina izan azken urteotan EAEko gizartean, eta unibertsitate-arloa ez da horretan salbuespen bat. Proiektu hau beren ikasketak unibertsitatean euskaraz egiten dituzten I. maila-ko ikasleei zuzendua dago, eta ekintza-ikerkuntza paradigmen baitan kokatzen da.

Proiektuaren helburua da ikertzea ea beren ikasketak euskaraz egitea aukeratzen duten I. mailako gazteekin fakultatean egindako interbentzioek ba ote duten eragi-nik ikaskideen arteko euskarazko erabilera gehitzeko garaian, eta nolako eragina duten interbentzio-mota ezberdinek.

Proiektuaren zuzendaria Iñaki Martínez de Luna EHU-UPVko irakaslea da, eta disei-nuan lankide izan ditugu Joxpi Irastortza (HUHEZIko irakaslea) eta Emun zein Elhu-yar Aholkularitza enpresetako teknikariak. Lehen interbentzioak 2011ko irailean eta urrian egin dira EHU-UPVko Arabako campuseko Magisteritza eta Gizarte Langintza fakultateetan. Finantziazioari dagokionez, berriz, proiektuak EHU-UPVko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren laguntza jaso du.

Babesleak



Euskara eta
Eleaniztasuneko
Errektoreordetza



Gasteizko Irakasleen
Unibertsitate Eskola

Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak

5

NERABEAK, INTERNETEO SARE SOZIALAK ETA EUSKARA

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterra eta Kultur Kabiak-Topagunea elkarlanean aritu gara gai hauen inguruan. Kultur Kabiak nerabeei zuzendutako hainbat aisialdi programa kudeatzen ditu. Programa hauetako bakoitzak bere ezaugarri bereizgarriak baditu ere, denetan erabiltzen dira interneteko sare sozialak nerabeen arteko harremanak eta nerabeek programaren arduradunekin dituztenak ahalbidetzeko. Interneteko sare sozialena fenomeno berria izanik, eta adin-tarte jakin batzuetan duten arrakasta kon-tuan harturik, interesgarri ikusten da tresna hauei ematen zaien erabilera hobeto ezagutzea. Izan ere, aurrera begira euskara sustatzeko baliabide eraginkorra izan litezke, egoki erabiliz gero.

Bi erakundeon artean burutu da Bilboko nerabe talde batekin ikerketa-eskuhartze proiektu hau, bi helburu argirekin:

- Batetik, aisialdi programetan sare sozialen bidez nerabeen euskararen erabileran eragitea
- Eta beste alde batetik, hizkuntza-portaeratan sare sozialen bidez eragiteko esku hartzeen baliagarritasuna aztertzea



Erakunde
lankidea



Babesleak



www.soziolinguistika.org/lagina

6

AHOZKO HIZKUNTZA-ERABILERA NEURTZEKO METODOEN GARAPENA: LAGINAREN KALKULUA

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

80ko hamarkadan erabiltzen hasi zirenetik etengabeko garapena ezagutu dute behaketa bidez hizkuntza-erabilera neurtzeko teknikak. Kaleetako erabileraren neurketak egiteko irizpideak finduz joan dira, esperientzia irabaztearen poderioz; aldagai berrien gaineko informazioa biltzeari ekin zaio, erabileraren azterketa xeheagoetarako; behaketa bidez ikastetxeetako jolaslekuetan eta lantegietan erabilera neurketak burutzen dira.

2009tik aurrera, Soziolinguistika Klusterra garapen horren hurrengo urratsa lantzen aritu da; behaketetako laginaren arabera datuen konfiantza maila eta errore maila kalkulatu ahal izateko bidearen bila. 2011n, aurrez landutako eredu matematikoa ahal bezainbeste findu da, datuen fidagarritasunaren neurria lortzeko. Horrez gain, neurketak egin nahi dituztenentzat erabilgarri egon dadin, behaketa bidezko neurketetarako beharrezko laginaren tamaina kalkulatzeko tresna informatikoa sortu eta esku-ragarri ipini da.

Babeslea





Proiektuak IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

www.soziolinguistika.org/ehkaleneurketa

7

EUSKAL HERRIKO KALEETAKO HIZKUNTZA-ERABILERAREN VI. NEURKETA DATU-BILKETA

Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketak 22 urteko ibilbide luzea du dagoeneko, 1989an lehenengo aldiz egin zenetik, lau edo bost urteren tartearekin errepikatu baita. 2011n VI. edizioa burutu du Soziolinguistika Klusterrak. Datu bilketa urrian egin da eta 2012ko udaberrian kaleratuko ditugu emaitzak. “Zenbat erabiltzen da euskara kalean?” Galdera horri erantzutea da, bere horretan, Kale Neurketaren helburua. Ahozko erabileraz ari gara, edozein pertsonak edozein pertsonarekin komunikatzeko erabiltzen duenaz. Erabileraren argazki kuantifikatu bat jasotzen da horrela. “Kalean” erantsi diogu galderari, bere zentzurik zabalenean: herriko plazan, edo umeen parkean, edo tabernen eta denden ingurunean. Horiexek dira ikerketaren ezaugarri nagusiak. Horiak eta beste hau: Euskal Herri osoan egindako ikerketa da. Muga administratiboak gaindituta, Euskararen Erabileraren Kale-Neurketak Euskal Herri osora zabaltzen ditu behatzaileak, eta Euskal Herri osoko argazkia jasotzen du objektibo angeluhandi batez.

Esan bezala, 1989an ekin zitzaion molde honetako ikerketari. Aldi hartan, Siadecok garatutako metodologiaz eta EKBren sostenguaz burutu zen neurketa. Hastapena zen, bide berritzailea, metodologia aitzindaria, beste inon egiten ez zena eta hemen nahiz atzerrian ikusmira handia piztu zuena. Gero, Soziolinguistika Institutuak hartu zuen lekukoa, harez geroztik Soziolinguistika Klusterraren ardura izan delarik. Erabiltako metodologiaren baliozkotasuna berretsi egin da edizioz edizio, eta oraingotan (VI. Neurketan) berebiziko hobekuntza egiteko moduan izan gara metodoa eta ikerketa bera sendotuz.

2011. urtean, beraz, Euskal Herriko VI. Kale Erabileraren Neurketaren datu bilketa egin dugu. Orotara 97 udalerrri neurtu dira. Emaiza 2012. urtean argitara emango du Soziolinguistika Klusterrak.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Saiotek,
Bilboko Udala,
Gasteizko Udala,
Donostiako Udala,
Arrasateko Udala, eta
herrietako neurketak
eskatu dituzten 47 Udal.

www.soziolinguistika.org/herrietakokaleneurketak

8

HERRIETAKO KALE ERABILERAREN NEURKETAK

Soziolinguistika Klusterrak urteak daramatza euskararen kale-erabileraren neurketak egiten herrietan. Udalek tokian tokiko errealitatea hobeto ezagutzearren neurketa bereziak egin nahi izaten dituzte, eta asko dira lau edo bost urteko maiztasunarekin erabileraren neurketak errepikatzen dituztenak, momentuko argazkia ez ezik erabileraren bilakaera ezagutzeko xedez. Hala, 2011ean ondorengo 47 udalerrietan burutu ditugu neurketak:

Abanto-Zierbena, Altsasu, Andoain, Anoeta, Antzuola, Aramaio, Arbizu, Aretxabaleta, Astigarraga, Barrika, Bermeo, Erandio, Ermua, Errearteria, Eskoriatza, Etxarri-Aranatz, Gernika, Gorliz, Hernani, Igarre, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Laudio, Legazpi, Lemoiz, Oiartzun, Olazti, Ondarroa, Oñati, Ordizia, Orozko, Plentzia, Sopela, Ugao-Miraballes, Uharte Arakil, Urdiain, Urduliz, Urduña, Urnieita, Usurbil, Villabona, Zaldibar, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.



Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

9

EUSKAINI

HERRIETAKO EUSKARAZKO ESKAINTZAREN NEURKETAK

Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Euskaini, euskarazko eskaintzaren adierazlea, Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística-ko teknikariek sorturiko *Ofercat* adierazlean oinarrituta SEI Elkar-teak prestaturiko egokitzapena da, geroztik Soziolinguistika Klusterrak bere egin duena. Gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, etab.) jasotzen dugun hizkuntza-eskaintza du aztergai; hau da, herritar batek jasotzen duen hizkuntza-errealitatearen zein proportzio dagoen hizkuntza jakin batean (errotuluak, idazkiak, ahozko komunikazioa...)

Euskaini-ren bitartez, konplexua den errealitate bat (herri bateko hizkuntza-eskaintza) modu sinplean eta indize zehatzen bidez adierazi dezakegu, modu horretan bere bilakaera ere aztertzei aukera izanik.

www.soziolinguistika.org/kasuak

10

EUSKARAREN NORMALIZAZIO KASU AURRERATUEN ARGITALPENA

Koordinatzailea: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org

Ezagutzaren Clusterraren “Kudeaketa aurreratuko enpresak” koadernoak oinarritzat hartuta abiatutako proiektua da hau. Proiektu honen helburu nagusia euskararen normalizazioan emaitza arrakastatsuak izan dituzten erakundeen esperientziak ezagutzera ematea da. Esperientzia hori formatu irakurterrazean idatzita, erakunde horiek lortutako arrakastaren gakoei buruz gogoeta suspertu eta euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak hedatu nahi dira enpresa-, unibertsitate- eta administrazio-arloan.

Orain artean, Lizarra Ikastola eta Txingudi Ikastolaren Kasuak argitaratu eta zabaldu ditugu. Horiez gain, GOIZPER Kooperatiba Elkartea eta ELKARGI Elkarrekiko Garantia Elkartearen Kasuak izan ditugu aztergai. Joxpi Irastortzak (Mondragon Unibertsitatea, Huhezi) zuzendu du proiektua, Oihana Lujanbiok idatzi ditu Kasuak eta Innobasqueko Javier Zarrabeitia izan dugu aholkulari.

Babesleak

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
SalburuordetzaCAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Soziolinguistikaren inguruan garatutako ezagutzak hizkuntza-normalkuntzari benetako bultzada eman diezaion beharrezkoa da ezagutza honen dibulgazioa behar bezala lantzea. Dibulgazio-lan hori egiteko bide desberdinak lantzen ditu Klusterrak: aholkularitza-zerbitzuak, argitalpenak eta formazio-eskaintza.

www.soziolinguistika.org/bataldizkaria

Proiektuak< PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

1

BAT SOZIOLOGIA ALDIZKARIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Euskararen berreskurapen- eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolinguistikan eta glotopolitikan jantzea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako Euskal Herriko nahiz atzerriko ekarpen esanguratsuak biltzen ditu.

BAT aldizkariko argitalpen batzordeko kideak Iñaki Martínez de Luna, Esti Amorrortu, Inma Muñoz, Jone Miren Hernandez, Jean Baptiste Coyos, Lionel Joly, Maria-Jose Azurmendi eta Pablo Sotés dira. Urtean zehar 50 egilek gora parte hartu dute gure lau zenbakietarako artikulak idazten, horien artean Euskal Herriko kanpokoak diren Jordi Solé i Camardons eta Albert Bastardas.

2011ko BAT aldizkariko zenbakiak honakoak izan dira:

- 78 zenbakia: **III. HAUSNARTU: Euskal Soziolinguistika Sariak** egitasmoari zuzentzen zaio. Lehiaketaren lan irabazleak argitaratzen dira urteko lehen zenbakian, eta baita ere Argitalpen Batzordearen iritzia aurkeztu diren beste lan batzuk ere. 2011ko lehen zenbaki honetan Luis Azpiatzuren, Galder Unzuaren, Patxi Juaristiren eta Roberto Manjónen lanak argitaratu dira.
- 79-80. zenbakia: **Diglosiaren inguruan**. Zenbaki bikoitz hau Euskaltzaindiarekin elkarlanean argitaratu du Klusterrak, eta abenduaren 23an aurkeztu zuten Bilboko Euskaltzaindiaren egoitza nagusian. Berezia da zenbakia azken urteetan euskal soziolinguistika-arloko gai nagusienetako bati heldu baitio Mikel Zalbide euskaltzainak, gai zentral eta monografiko modura lantzeko: Diglosia. Txosten horretan planteatzen diren gaiei erantzunez, Euskal Herriko zazpi soziolinguistek eman diote erreplika, artikulua laburren bitartez. Honakoak dira saio honetan parte hartu duten lagunak: Paula Kasares, Iñaki Martínez de Luna, Julen Arexolaleiba, Maria-Jose Azurmendi, Xabier Isasi, Lionel Joly eta Joxe Manuel Odriozola. Horrez gain, aldizkarian parte hartu dute honako egileek: Arkaitz Zarragak eta Jordi Solé i Camardons-ek. Artikulu-oinarri izan dira, halaber, hitzaldietan parte hartu dutelako edota mahai-ingururen batean, Juan Carlos Etxegoien Xamar Soziolinguistika Jardunaldian egindako elkarrizketaren berri eman dugulako, eta mahai-inguruan parte hartu zuten Benito Fiz, Julen Arexolaleiba, Txerra Rodriguez eta Jacqueline Urla.
- 81. zenbakia: **Hizkuntza-ekologia euskararen ingurunean**. Artikulugileak: Albert Bastardas, Belen Uranga, J. Inazio Marko, Itziar Idiazabal, Jon Sarasua eta Xabier Erize. Gainera, EHUko ikastaroko mahai-inguruan parte hartu zuten Patxi Bastarrikaren eta Iñaki Martínez de Lunaren laguntza ere ezinbestekoa izan da.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikako
Salburuordetza



Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikulak (azken laurak izan ezik) Interneten jartzen ditu eskura.



Proiektuak

PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

www.soziolinguistika.org/hausnartu

2

HAUSNARTU

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntzaren berreskurapen bidean ezagutza aplikatua lantzea ezinbestekoa da, baina ezagutza aplikatu horrek oinarritzko teorietatik jaso behar du bere funtsa. Oinarritzko edo purua deritzon ikerketa eta hemendik atera litekeen ezagutza garatzea, beraz, behar-beharrezkoa da. Honetarako gune naturala unibertsitatea izan ohi da, eta, horregatik, Soziolinguistika Klusterraren erronka unibertsitateko irakasleak soziolinguistikaren ikerketa-lerro hauetara erakartzea da.

HAUSNARTU Soziolinguistika Sarien III edizioa antolatu zuen Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin.

Asmoa da dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Horrela, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaltu eta aberastuko dira.

2011ko epaimahai-kideak ondorengoak izan dira: Iñaki Martínez de Luna, EHUko irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordekoa, Pello Jauregi, HUHEZIKo irakaslea, Joxean Amundarain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Teknikaria eta Iván Igartua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako koordinazio zuzendaria. Mahai horren arabera lehiaketaren irabazle izan dira ondorengo lanak:

Lehen saria, 1.300 €

Izenburua: *Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik*

Egilea: Paula Kasares Corrales

• Bigarren saria, 900 €

Izenburua: *Sartu-irten bat auzoaren etxean*

Egilea: Dabid Anaut Peña

• Hirugarren saria, 600 €

Izenburua: *Hezkuntza marko hirueledunaren ondorioak*

Egilea: Maier Ugartemendia Ugartemendia

Saritutako lan guztiak BAT
Soziolinguistika aldizkariaren 82.
zenbakian argitaratuko dira.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza





Proiektuak PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

3

EUSKAL SOZIOLOGIA JARDUNALDIK

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

IV. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia MIRAMON Zientzia Museoa burutu zen Soziolinguistika Klusterrak antolatuta. Jardunaldia hausnarketa teorikoan eta maila aplikatua euskaletan ari direnei zuzenduta egon zen eta bertan elkartu ziren ehun bat lagun. Ikerlariak, unibertsitateko irakasleak eta ikastetxeetan, lan-munduan eta administrazioan euskararen normalizazioan ari diren topagune izan ohi da jardunaldia, eta horretarako, hitzaldi, lan-saio, mahai-inguru eta elkarriketak antolatzen dira, eskura dauden datuak partekatuz, horien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko. Edizio honetan landutako gai nagusia *Soziolinguistikaren dibulgazioa* izan da.

- Zein dira euskal soziolinguistikan “irakurrienak”?
- Nondik elikatzen dira gure euskara teknikariak? Iturri berririk behar al da?
- Zein bitarteko ditugu soziolinguistikaren zabalpenerako?
- Ba al dago maila teorikoan eztabaidarik gaur egun? Zertan?
- Zertarako behar ditugu eredu teoriko berriak? Nola aplikatu behar ditugu?

Jardunaldian hizlari edota kolaboratzaile moduan izan zirenen artean honakoak daude: Juan Carlos Etxegoien *Xamar*, Mikel Zalbide, Iñaki Martinez de Luna, Paula Kasares, Jordi Solé i Camardons, Txerra Rodriguez, Jacqueline Urla, Julen Arexola-leiba, Benito Fiz eta Arkaitz Zarraga.

Jardunaldiko hitzaldien materiala eta bideoak Soziolinguistika Klusterreko webgunean ikus daitezke.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizuntza Politikarako
Sailburuordetza



Proiektuak PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

www.soziolinguistika.org/ehuikastaroa



4

SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA EHUREN UDAKO IKASTAROETAN

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterrak hirugarren aldiz antolatu du soziolinguistika-arloko ikastaroa EHUKo Udako ikastaroetan, aurtten, *Hizkuntza-ekologia: teoriatik praktikara* izenburupean.

Hizkuntza-praktika ekologikoen inguruko eztabaida eta proposamenak egitea izan da ikastaroaren helburu nagusia, ekologiak planteatzen dituen hainbat ereduren inguruan hausnartu eta hizkuntza gutxituak biziberritzeko praktika eta plangintzetan zernolako ideia berritzaile ekartzen dituen aztertzea.

Esate baterako, hizkuntzek bizi daitezen bete behar dituzten gutxieneko baldintzen inguruan eztabaidatu zen, edo aniztasunaren balio unibertsala bezalako gaiak hizkuntzen arloan nola aplika daitekeen buruz.

Ikastaroko hizlariak honakoak izan ziren: Carme Junyent (Bartzelonako Unibertsitatea), J. Inazio Marko (Euskal Herriko Unibertsitatea), Imanol Miner (Gipuzkoa Donostia Kutzako Hizkuntzen Kudeaketa arloko arduraduna), Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea), Iñaki Martinez de Luna (Euskal Herriko Unibertsitatea), Patxi Baztarrika (Euskara teknikaria eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-Politikarako sailburuorde ohia) eta Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra).



Babeslea



5

HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN INGURUKO AHOIKULARITZA KUTXAREN EKOLOGUEA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntza-ekologia soziolinguistikaren arlo teorikoan eta normalizazio-prozesuetan ari direnen artean gero eta leku handiagoa hartzen ari den gaia da. Izan ere, XXI. mendeko erronka nagusien artean kokatzen da *gizakiaren garapen iraunkor* modura definitu den gaia. Esparru horretan kokatzen da garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa, eta baita ere, garapen kulturala. Testuinguru horretan hizkuntza-ekologiaren teoria eta praktika garatzen eta zabaltzen doan jakintza- eta praktika-esparrua da.



Gai horren inguruan Soziolinguistika Klusterra aholkularitza tekniko eskaintzen ari zaio Donostia-Gipuzkoa Kutxa prestatzen ari den EKOLOGUE proiektu handiari, bertan kokatuko baita *Hizkuntzaren ekologia* gunea. Kutxa Ekogunea jarrera bat da, kontzientziazioetik ekintzatarara pasatzeko bokazioz jaio den ekimena, parke batek gorpuztuko duen proiektu bat. Bertan, hizkuntza-ekologiaren gaiaz gain landuko diren gaiak honakoak dira: energia berriztagarriak, eraginkortasun energetikoa, garraio jasangarria, natura, zaindu eta maitatu, konposta, uraren garbiketa naturala, nekazaritza ekologikoa eta kontsumo jasangarria.



Proiektuak< PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

6

HIZKUNTZA-ÉKOLOGIA ETA LURRALDE EUSKALDUNAK TOPAKETA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* izeneko topaketa antolatu zuen Soziolinguistika Klusterraren aholkularitza teknikoaren laguntzarekin. Ekitaldia 2011ko apirilean, Azpeitiko Sanagustin aretoan burutu zen.

Topaketan, UEMAren 20 urteetako ibilbidearen berri eman eta etorkizunerako UEMA zein izan daitekeen landu zen. Horrekin lotuta, lurralde euskaldunetan hizkuntza ekologiaren teoriaren, planteamenduen eta ikasbideen aplikazioa aztertu zen, horretarako bildu zirelarik hizlariak, hizketaldietan parte hartu zuten teknikariak eta politikariak.

Topaketan parte hartu zutenen artean honakoak daude: Albert Bastardas i Boada (Bartzelonako Unibertsitateko hizkuntzalaritza katedraduna), Xabier Ezeizabarrena zuzenbidea eta hizkuntz ekologia uztartzeaz aritu zena, J. Inazio Marko Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea “arnasgune” kontzeptua gai hartuta, eta Belen Uranga Soziolinguista Klusterreko teknikaria, gaiari sarrera eginez.

Albert Bastardas irakaslea Topaketa honetan parte hartzen zuela profitatuz, 25 lagunen arteko MINTEGI bat ere burutu zen Martin Ugalde Kultur Parkean, Hizkuntza Ekologiaren teoria eta praktikaren etorkizunaz eztabaidatzeko. Bertan izan ziren gaiaren inguruko Euskal Herriko aditu nagusienak.



Babeslea



Proiektuak

PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDA eta SENTIBERATZA

www.soziolinguistika.org/gazteak

7

ERABILERAREN GPS-A. GAZTEEN ERABILERAN KOKATU ETA BERTAN ESKU-HARTZEKO GIDA

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterrak, Urtxintxa Eskolak eta Topagunea euskara elkarten federazioak urteak daramatzate gazteen hizkuntza-erabileraren gaia jorratzen elkarlanean. Gazteen hizkuntza-erabileraren fenomenoaren gaineko hausnarketa partekatua egin ostean hausnarketa horren ondorioak hitzaldi eta aurkezpen publikoen bidez aurkeztu zen aurreko urteetan.

Erabileraren GPS-a ildo horren azken urratsa izan da. Gazteentzat eta gazteekin harremanean dihardutenentzat erabilgarria izan dadin egokitutako tresna da. Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak kontuan hartu eta hauetan esku hartzeko gida, hain zuzen ere. Liburuxka eta poster formatuan zabaltzen da, bai paperean eta baita interneten ere.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



8

SOZIOLINGUISTIKA: KONTZEPTU NAGUSIAK IKASTAROA

Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

Izenak berak adierazten duen moduan, proiektu honen helburua soziolinguistika-arloko oinarritzko ezagutza bat eskaintzea da, eta Ikastolen Elkartarekin lankidetzan garatu da 2011. urtean zehar.

2010. urtean *Soziolinguistika Eskuliburu*a argitaratu ondoren, bertan bildutako ezagutza baliatu dugu proiektu honetan, baina ezagutza horri formatu arinago eta praktikoago bat emanaz. Eskuliburuaren bateratzaile eta egileetako bat izan zen Arkaitz Zarraga irakaslearen laguntzaz, 15-20 orduko iraupena duen ikastaro bat diseinatu dugu, eta martxan jarri.

Gaia aditua ez den eta izateko asmorik ez duenari (lehen edizio honetan, adibidez, ikasleetako irakasleak) gutxieneko ezagutza soziolinguistikoko bat eskaintzen zaio 3 edo 4 saiotan ikastaro honen bitartez, ikuspegi praktiko batetik, eta ahal den neurrian eduki teorikoak egunerokoan sortzen zaizkigun egoerekin eta zalantzekin lotuz. Lau ikastaro eman dira urtean zehar, guztiak Ikastolen Elkarte irakasle eta teknikariei.

Erakunde
Lankidea



Proiektuak< PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

9 FORMAZIO- ETA AURKEZPEN-SAIOAK

Dibulgazioaren esparruan Klusterreko teknikariak eta kolaboratzaileek espreski eskaturiko formazio-materialak eta hitzaldiak eskaini dituzte, batez ere, jorratzen ari garen gaien inguruan.

BERDE-BERDEA MATERIAL DIDAKTIKOA

Donosita-Gipuzkoa Kutxaren proiektu honek hau du helburu: gazteen heziketa eta parte-hartzea sustatzea ingurumenaren alde. Aurtengo edizioan *Hizkuntza-ekologia* aukeratu du Kutzak eginkizun horretarako, eta Soziolinguistika Klusterrak garatu du material didaktikoaren edukia.



EKOLIDERRAK EGITASMOAN HITZALDIA

Urtero bezala, Soziolinguistika Klusterrak *Hizkuntza-ekologia* eta *hizkuntza-aniztasunaren* inguruko gaia landu du Kutxaren Ekoliderren programan. GAZTE EKOLIDERRAK proiektuaren helburu nagusia Gipuzkoan jasagarritasunaren alde gogoz arituko den gazte-sare formatu eta aktiboa sortzea da. Trebakuntza eskaintzan esparru anitzetako unibertsitateko irakasleak, erakundeetako ordezkariak, profesionalak, elkarteak, adituak, aktibistak, mendizaleak eta bestelakoek parte hartzen dute, garapen jasagarria eta lidergoa ikuspuntu ezberdinetatik landu ahal izateko.

Gazte Ekoliderren proiektua hiru hitzetan labur daiteke, Trebatu-Ekin-Izan eta hitz bakoitzaren baitan fase bat dago.



GARABIDEko BATZORDE TEKNIKOKO LANKIDETZA

Garabidek eta Huhezik antolatutako Hizkuntzen Berreskurapenerako Aditu tituludun maisutzaren Batzorde Akademikoan parte-hartu du Soziolinguistika Klusterrak. 2011ko maiatzetik uztaila bitartean egin zuten master hori Eskoriatzan. Bertan, Mexiko, Ekuador, Kolonbia, Guatemala, Bolibia eta Wallmapuko (nazio maputxea) partaideak izan ziren. Hiru hilabetez hizkuntza gutxituen berreskurapenerako arlo desberdinetan garatu daitezkeen ekintzak aztertu dituzte, ardatz moduan euskararekin jarraitu dugun ibilbidea hartuta.

Soziolinguistika Klusterrak parte aktiboa izan du master honen garapenean bere Batzorde Akademikoan parte hartzeko aukera izan baitu, eta baita, lehen bi asteetan landutako munduko hizkuntza-aniztasunaren eta hizkuntza-ekologiaren gaiak aztertzerakoan ere, Andoni Barreña, Jon Sarasua, Iñigo Arteatx, Juan Carlos Moreno Cabrera eta Iñigo Iñurrategirekin batera.



Proiektuak PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA

10 SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA INTERNETEN

WEBGUNEA ETA TELEBISTA

Klusterren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko eginbe-harra, eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrena. 2011n webgunearen itxura berritu dugu, atsegina eta erabiltzeko errazagoa izan dadin.

Soziolinguistika Klusterren webguneak bi lerro nagusi ditu: bata, Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begirakoa; proiektuen garapenean sortutako informazioa partekatzerara bideratutakoa. Bestea, publiko zabalarari eskaintzen zaion informazio bilduma, batez ere proiektuen emaitzetan oinarritutakoa.

2011n zehar **www.soziolinguistika.org** webgunean egindako berrikuntza nagusiak hauek izan dira:

- Webgunearen sarrera-orria berritu da. Erakundea eta bere proiektuen inguruko informazioa menu-barra nagusian kokatu da. Portadaren erdialdea albisteei eskaini zaie. Eskuineko barran barne-sarera sarrera eta Klusterren beste komunikazio bideetara loturak kokatu dira: Berripapera, Twitter, Facebook eta soziolinguistikaTB
- Hainbat atal berri sortu dira:
 - Agenda: soziolinguistika eta bere inguruko gaiak jarraitu nahi dituenari zuzendutako hitzorduen biltegia da.
 - Materialak: hainbat ikerketa, argitalpen eta hausnarketa-lan biltzen dituen atala da.
 - Formazioa: soziolinguistika edo inguruko gaietan prestakuntza lortzeko Euskal Herrian dagoen eskaintzaren berri ematen du atal honek. Ikastaro, tailer edo ikasketa bakoitzerako dagokion erakundera bideratzen da erabiltzailea.
 - Soziolinguistika Telebista: Klusterrek edo beste eragileek soziolinguistika-gaien inguruan produzitzen dituzten bideoen biltegia da.

Koordinatzaileak:

Denis Elortza eta

Asier Basurto

d.elortza@soziolinguistika.org

a.basurto@soziolinguistika.org



Proiektuak PRESTAKUNTZA, ZABALKUNDEA eta SENTIBERATZEA



SARE SOZIALETAN: TWITTER ETA FACEBOOK

Facebook eta Twitter sare sozialetan profilak ditu Soziolinguistika Klusterrak eta webguneko albistegiarekiko balio erantsia ekarri dio horrek orain arteko komunikazio gaitasunari.

Webguneko albisteak hartzaile interesdunei zuzenean bidaltzeko aukera eman digute sare sozialek eta, horrenbestez, gure jardunaren kanporako irisgarritasunak hobekuntza nabarmena izan du. Gainera, aipatutako sare sozial horietako gure jarraitzaileen *feedback* zuzena etengabe jasotzeko balio izan digu eta, horrek, askotariko eragileekiko lankidetzak estuagorako bideak zabaldu ditu.

Era berean, gure intereseko erakunde zein norbanakoen jarraipena egiten dugu Facebook eta Twitter bidez eta gure gertuko (bazkideak, kolaboratzaileak...) bozgorailu rola ere hartu dugu.

Koordinatzaileak:

Denis Elortza eta

Asier Basurto

d.elortza@soziolinguistika.org

a.basurto@soziolinguistika.org

SOZIOLINGUISTIKAZ BERRIPAPERA www.soziolinguistika.org/berripapera

SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa euskararen normalizazioarekin eta, orokorrean, soziolinguistika-arloko argitalpen, ikerketa, ekimen eta abarrekin lotutako informazioa zabaltzeko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaltzen du web eta posta elektroniko bidez gai hauetan interesa dutentzat.


Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoa banatzen da eta formatu laburreko albisteak biltzen ditu; kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dagoen lotura jarritz.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabete behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara-zerbitzuak, euskara-elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara-teknikariak, irakaskuntza-arloan normalkuntzaren plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Koordinatzailea:

Asier Basurto

a.basurto@soziolinguistika.org



**Izan zaitez
Soziolinguistika
Klusterreko
bazkide!!!**

Bazkide izatearen onurak

- ESPARRU TEORIKOA EDOTA APLIKATUA LANTZEN DUTEN ERAGILEEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN INGURUAN BILDUTAKO ERAKUNDE ETA ADITU SAREAZ BALIATZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN BIDEZ, NORBERAK BERE KABUZ LANDU EZINGO LITUZKEEN PROIEKTUAK LANTZEA ETA HORIEN GARAPENEAN PARTE HARTZEA.
- SOZIOLINGUISTIKAREN INGURUKO INFORMAZIO ETA FORMAZIO GAURKOTUA JASOTZEA.
- ERAGILEAK EGITURATUTA EGOTETIK SOR DAITEKEEN EMAITZAK JASOTZEA.
- SOZIOLINGUISTIKA EZAGUTZAREN GARAPENAREN BIDETIK, ERAKUNDEA BERA LANTZEN ARI DEN EUSKARAREN BERRESKURAPEN PROZESUA ERAGINKORTZEA.
- KLUSTERRAK GARATZEN DITUEN PROIEKTU ZEHATZETAN PARTE HARTZEKO AUKERA.
- KLUSTERREKO (ERAKUNDEARI BURUZKOA) INFORMAZIO ZUZENA JASOKO DUTE.
- KLUSTERRAK ANTOLATUTAKO EKITALDI PUBLIKOETAN (PROIEKTUEKIN LOTUTAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK, EHUKO UDAKO IKASTAROAK, SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIAK...) IZENA EMATEKO LEHENTASUNA IZANGO DUTE.
- PREZIO BEREZIAK IZANGO DITUZTE SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK ARGITARATUTAKO LIBURU ETA BESTELAKO MATERIALA EROSTEKO.

